

Otsailak 22, Soldata Berdintasunaren Europako eguna

Europar Batasunaren oinarritzko printzipioetako bat emakumeei eta gizonei berdin ordaintzea da eta printzipio hori Europar Batasunaren araudiak babesteaz gain, nazioarteko araudiak, Estatuko araudiak eta Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) araudiak ere babesten dute. Teoriatik praktikara, ordea, ezberdintasunak nabariak dira.

[INeren Soldata Egituraren Urteroko Inkestaren](#) arabera, 2016 urtean, EAEn gizon eta emakumeen errentaren batez bestekoaren artean 7.573€ko aldea zegoen (23.428€ emakumeek, 31.001€ gizonek). Gainera, larritzeko datua da urtetik urtera soldata arrakala handiagoa izatea. 2016ko arrakala 2015ekoa baino 0,2 handiagoa zen. Nola da posible, orduan, Europar Batasunean, Estatu-eta EAE-mailan emakume eta gizonei berdin ordaintzeko printzipioa izanik errealitatean honako desoreka egotea?

Faktore asko daude desoreka hori sostengatzen dutenak, eta EGKtik garrantzitsu ikusten dugu **Soldata Berdintasunaren Europako eguna** izanik, soldata berdintasunaren aldarrikapena mahai gainean jartzea. Izan ere, desberdintasun kuantitatiboak egoteaz gain (soldatetan ezberdintasunak), sektoreetako, lanbide motetako eta lanpostu mailletako desorekak ere existitzen dira.

Soldata Arrakalari buruz hitz egiteko, Emakundek 2018an [Soldata arrakala Euskal Autonomia Erkidegoan](#) txostenean jasotakoan eta EGK-k plazaratutako [Ibilbide Moreak](#) txostenean oinarrituko gara. Aldi berean, desberdintasun ekonomikoa eragiten duen segregazio horizontal eta bertikalak zeintzuk diren azpimarratu nahi dugu.

Soldata-arrakala

Zer da Soldata Arrakala? Soldata Arrakala lan-merkatuko diskriminazioak eta desberdintasunak islatzen ditu, eta diskriminazio eta desberdintasun horiek, praktikan, emakumeei eragiten diete nagusiki.

Soldata arrakala sortzen duten faktore batzuk:

- Emakumeek egindako lanari balio sozial eta ekonomiko txikiagoa ematea.

- Emakumeek eta gizonek egoera ezberdina dute enpleguan (lan-segregazioa), genero-harremanen, estereotipoen eta generoen uste faltsuen eraginez.
- Gizonek, enpresek eta erakundeek ez dute erantzunkidetasunik zaintza-lanetan.
- Emakume gazteen artean nagusitzen ari den joera (horrekin gero eta gizon gehiagok bat egiten duena): aberastasuna esparru pertsonalaz eta pribatuaz gozatzeko denborarekin lotzen da, eta ez ordainsari handiagoa izatearekin.

Desoreka hauek gainditzeko eta lan munduan ere berdintasuna nagusi izateko, gaur ere, **otsailak 22 Soldata Berdintasunaren Europako egunean** EGKtik eskaera hauek egin nahi ditugu:

- Ezinbestekoa da enplegura bideratutako politika publikoetan genero-ikuspegia txertatzea.
- [Ibilbide Moreak](#) txostenean landutakoaren harira, soldata arrakala behin betiko ixteko ekintza positiboak, berdintasun planak eta negoziazio kolektiboa sustatzea beharrezkoak dira.
- Soldata arrakalaren azterketa egiteko eman beharreko lehenengo urratsa sexuka banatutako datu eguneratuak izatea da. Nahiz eta aldarrikapen hau 1995ean [Beijingeko Nazioarteko Emakumeen konferentzian](#) egin, gaur egun 2016ko datu banatuak ditugu eskuragarri. Errealitate dinamikoaren ezagutzarako beharrezkoa da sexu eta adinka banatutako adierazleak eguneratuak izatea.